

4. DIRU-SARRERAK

Gure diru sarrera nagusia pintxoak eta edariak saltzea izango da. Pintxo bakoitza tabernan balio duena baino 50 zentimo garestiago kobratuko dugu. Adibidez, Arripausuetako (Durangoko taberna bat eta gure enpresaren aliatu bat) pintxo bat 2 euro badira guk 2,3 eurotan salduko dugu, Oconnors-eko pintxo bat 1,8 bada 2,1ean salduko dugu, eta horrela pintxo guztiakin. Hala ere, gure makinan pintxoak salgai jartzea ere kobratuko dugu, publizitatea delako azken finean, eta hortik, tabernekin adostuko dugu zein kostu izango duten pintxoak eta zein kostu publizitateak, honela produktuarengatik gutxiago ordaintzeko.

Irabazien %60-a eramango dugu Lander, Paul, Eñaut eta Unaik bakoitzak %15. Geratzen den %40 arekin enpresa hobetuko dugu, hau da inbertsioan (I + D) eta produktibitatean inbertituko dugu..

Azkenik, txartel berezi bat egingo dugu, 10 euro balioko dituen baina horrekin deskontuak, pintxoak doan eta horrelako gauzak lortu ahalko dituzuna. Dirua makinan sartu eta bertan erosi beharko zenuen txartela. Adibidez, pintxo bat doan erosten dituzu 10 pintxo bakoitzeko edota noizean behin pintxo batzuetan 20-30 zentimoko deskontuak, gutxien saltzen diren pintxoak errezago saldu ahal izateko.

Gure enpresa merkatuan denbora bat egon ostean markekin lan egitea gustatuko litzaiguke eta haiek dirua empresan jartzea guk haien marken publizitatearen ordeiz. Azken finean bi alderdiak irabazteko edozein metodo bilatuko dugu biek gustura egoteko elkarrekin lan egiterakoan.

